



Israelek aste hauetan zehar Gazan egindako sarraskia eta Gazan bizi diren palestinarren erresistentziaren ondorioz, aste honetan su etena ahalbidetu duen akordioa sinatu dute Palestinako eta Israelgo ordezkariak. Akordioan Gazako blokeoa arintzea eta mugetako igarobideak zabaltzea lortu zuten Palestinarrak. Akordio hau poztasun txiki bat izan da baina palestinarrek jasaten duten zapalkuntza ez da eten: atxiloketak, okupazio militarrek, Apartheidaren Harresiak... presente daude oraindik. Horregatik Askapenak Palestinarekiko elkartasun ekimenekin eta Israelen aurkako Boikot kanpainarekin jarraitzea eta ekimen hauek indartzeko deia luzatu dute. Zentzu horretan elkarte internazionalistak salatu ditu eusko jaurlaritzak eta bestelako euskal elkarteek Israelekin dituzten akordioak eta interesak.

Askapenaren oharra:

Albiste pozgarria izan dugu aste honetan bai Gazako biztanleentzat eta baita Palestina bihotzean daramagun milioika lagunontzat ere. Palestinarrek, beste behin ere, erresistentzia, ezinbestekoa dela erakutsi digute eta sufrimendu amaiezinen erdian, irribarrea bilakatu dira munduko herri borrokalariontzat. Su etenerako akordio erdietsi dute Israeleko Estatu Sionistak eta Palestinar Erresistentziak. Gazako blokeoa arintzeko eta mugetako igarobideak zabaltzeko akordioetara iritsi ziren, Gazako egoera tamalgarria pixka bat bada ere lasaituz. Honegatik bete dira alaitasunez Gazako kale birrinduak.

Keinu txikiena ere ospatzera ohitu gaituzten honetan ordea, palestinarren egunerokotasunak eta zapalketa etengabeak berehalakoan sakonago hausnartzera bultzatu behar gintuzke: Okupazio militarra, Apartheidaren Harresia, atxiloketak, hildakoak, erbestea, Check Point ak, etxeen erauzketak, kolonizazioa... Palestinarren eguneroko ogi diren kontu hauetaz hitz erdirik ez diote ordea, ez komunikabideek eta ezta nazioarteko agintari ustelek ere. Eta nekez biziko dira bakean palestinarrek, aipaturiko hauek eta beste hainbat eskubide zapaltzen zaizkien

bitartean.

Horregatik, Askapenatik Palestinarekin elkartasunean tinko jarraitzeko irromotasuna adierazi nahi dugu. Eta honetarako bide bakarra, Israeli Boikot kanpaina indartzea eta zabaltzea da, pasa den eguneko poz txikia, borroka honetan jarraitzeko baliatuz.

Zentzu honetan, elkarlan adibide paregabeak topatu genitzakeen arren, Ertzaintzan edo Foru Zaingoan, duela hilabete inguru jakin genuen, Israelen lagun diren Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Nekazari Elikagaien Kooperatiben Federazioa, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorena, Euskadi-Israel Kultura Elkarte (Havtajá) eta EAJko eta PPko parlamentariak, alde batera utziko zutela egin beharreko bidaia "segurtasun" irizpideak zirela medio.

Beste behin ere latsa gutxi erakutsi dute, uko egitearen arrazoiak segurtasunari lotuz. Honela, onartezinak zaizkigu milaka hildako eta zapalketa militar gupidagabe honen aurrean gisa honetako adierazpenak gure ordezkari politikoen ahotan. Ezin baitugu ahaztu Eusko Jaurlaritzak (Nazioartekotzeko Euskadi-2020 Basque Country Esparru-Estrategian) Israel izendatu duela eremu ezberdinetan ikasi eta konparatzeko erreferentziazko herrialde gisan. Palestinaren okupazioa, beste ezereen gainera, negozio handia da Israelgo Estatuarentzat eta baita Euskal Herriko burgesiarentzat ere nonbait.

Euskal Internazionalistok, argi dugu baina, Sionismorik gabeko Euskal Herria nahi dugula eta lortu arte borrokan jarraituko dugula. Geroz eta gehiago gara bide honetan gure harritxoak jartzeko prest gaudenak, Palestinaren alde indarrak batzen eta Sionismoaren atzaparrei mugak jartzen. Horretarako hauek dira Askapenatik lehenesten ditugun eginkizunak:

- Palestinarekiko elkartasuna etenik gabe adierazteko dei egiten dugu.
- Israeli Boikot kanpainarekin konpromisoak hartzea animatzen dugu herria.
- Eusko Jaurlaritzari eta sionismoaren lagun diren alderdi politikoei interpelazio zuzena egitera dei egiten dugu
- Egun Euskal Herrian Israelgo Estatu eta sionismoaren lagun diren instituzio eta alderdi politikoei interpelazio zuzena egitera dei egiten dugu eta harreman oro eten ditzaten presio egitera. Horien artean Eusko Jaurlaritzaaren Nazioartekotzeko Euskadi-2020 Basque Country Esparru-Estrategiatik Israel kanpo uzteko exijitzen dugu.